

1994ko otsailak 25

225. zenb.

PRESS

ARRASATE

Elkarrizketa
Jonan Fernandez

“Danok”:
Euskaltzaleen
lehen taupadak

*“Hour Kantarien lehiaketa”
Gurea Zinema, 1970 ean*

Mondeo

1994 urteko autoa European



Orain bertsio berri batean:



**Mondeo, 16 balbulakoa
2.360.000 PTatik aurrera**

PROBA EZAZU



MUGARRI

Alfabetizazio osoaren alde

Analfabetismoaren kontzeptua, kontzeptu erlatiboa, dinamikoa eta zentzu txarrekoa dugu. Bere zentzu hes-tuan hartzen badugu, analfabetismoa, irakurtzeko eta idazteko ezintasuna dela esango genuke. Zentzu zabalagoan hartuta, aldiz, gure gizartearen ohizko komunikaziorako tresna erabiltzeko ezintasuna dela esango dugu.

Bistan da, definizio hauek oso zabalak direla eta ez digutela argitasun handirik ematen gai honetaz hausnarketa egiteko, horregatik Gordon Wells deritzon irakasle kanadariaren sailkapena dakargu testura kontzeptu hau gehiago zehaztu asmoz.

Wells-en iritziz herri edo kultura bakoitzarentzat esanahi desberdina eduki dezake «alfabetatu» hitzak. Bestalde, eta gure kulturara mugatuta ere, azken hogeit urteotan alfabetatuaren esanahia aldatuz joan da. Guk hemen, mendebaldeko kulturaren kokatuko dugu «alfabetatu» hitzaren esanahia. Irakasle honek hiru alfabetatu maila ezartzen ditu:

• *Alfabetatu funtzionala*, hau da, eguneroko bizitzan aurkitzen ditugun informazioak ulertzeko gai den pertsona. Kategoria honetako alfabetatuak ez du arazorik izango jarraiko egoeretan: telebistako programak ulertzeko, zer-

bait erosterakoan publizitateak gudan duen eraginaz konturatzeko, bulegoetako leihatiletan betearazten dizkiguten inprimakiak betetzeko, etxekoei idatzita uzten dizkiegun oharrak idazteko,.... Heldu askorentzat hauek izango dira, pertsona alfabetatuak diren heinean, hizkuntza idatziarekin harreman-


tan jartzeko aukerak.

• *Alfabetatu informazionala*, hau da, aurreko esparruez gainera, eskola-liburuak, lanmemoriak eta antzerako testuak ulertzeko gai dena. Egoera hauetan aurre egiten jakitea garrantzizkoa da gizarte alfabetatu osorako Wells-en iritziz.

• *Pentsamendu letratu*a, edozein testu irakurtzeko eta ulertzeko gai den pertsona. Hirugarren maila honetan, informazio soila gaindituz, informazioari buruzko iritziak ematen dituzten testuak aurkituko ditugu, errealak zein fikziozkoak: zientzia desberdinei buruzko teoriak, nobela, antzerkia, poesia, eta abar. Esparru honek herri baten aberastasun intelektuala eta izpirituala baten ditu.

Wells-en ustez lehendabiziko maila biak dira, funtzionala eta informazionala, alfabetizazioaren mailak igotzeko kanpaina politikoetan kontutan izaten direnak. Baina bi maila hauek eguneroko praktikotasunerako oso garrantzizkoak bada ere, hirugarren kategoria «pentsamendu letratuarena», alegia, beharrezkoena da gizarte alfabetatu batean parte hartu nahi duenarentzat. Pertsona bakoitzak indibidualki, irakurle modura, interpretazio pertsonalak garatzen eta ebaluatzen ez baditu, besteren esanetara geldituko da, besteren iritzizko menpe. Kontutan izan behar dugu hirugarren esparru honetan parte ez hartzeak dakarren murrizketa pertsonala eta gizartearen eraikuntzan parte hartzeko ezintasuna. Beraz, hirugarren kategoria hau alfabetizazio kanpainetan sartzearen aldeko agertzen da irakasle kanadiarra, beti ere, benetako alfabetizazioa lortu nahi bada. Beraz, esandako guztiaren araber pertsona letratuak lortzea edukiko genuke helburutzat, gizarte alfabetatu baten parte hartzeko hiritar eragile eta iritxiduna izatea ezinbestekoa baita. Gure errealitatera etorrita, beraz, aspaldi honetan kaleratutako datuak kontutan baditugu errealitate honetatik oso urrin gaudela ikusiko dugu, oraindik ere. Belgikan antzera, Euskal Herrian ere %1a da analfabeto osoa, aipatutako hiru maila banatan zenbait gauden bakoitzean ez dakigula.

MATILDE SAINZ OSINAGA



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Leguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Luge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Laso- Joseba Valles



Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



GATZAGAN

Memesa

79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Izadi

Sendabelarrak, dietetika eta kosmetika naturala.

Sendagile naturistaren kontsulta

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79
Kontzezino, 8 79 03 56



HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK



77 08 15

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21

.....

...Oraintxe dugu aukera!

Eskutitz hau sinatzen dugunok bakea nahi dugu gure Herriarentzat. Horretan denok ados. Sinestuta gaudе, gainera, uzta jasoko bada, aurretik ereina behar duela. Hor ere ados.

Horrexegatik, bake bidean jartzen gaituenaren alde egin nahi dugu, ez kontra; batu, ez sakabanatu; giro egokia sortu, ez lardaskatu. Aukera berezia daukagu gure herriaren norabidea alda dadin, denon laguntzaz.

Datorren martxoaren 12an eta "elkarrizketa eta distentsioa... oraintxe dugu aukera" lemapean, manifestaldia izango da Bilbon, Elkarrizketa mogimendu sozialak deituta. Gu ere han izango gaituzu, ezinbestekotzat jotzen baitugu kontrako jarren arteko komunikazioari zubiak jartzea eta **Elkarrizketa** eta **distentsioa** bul-

tzatzea; ez bakarrik ETA eta Gobernuaren artekoa: baita gizarteko agente polarizatu guztien artekoa ere.

Elkarrik deitu bai, baina geure izen propioan agertu nahi dugu han; siglen mobilizazioa izan barik, gizartearena izan dadin. Izan ere, badira zenbait faktore berri abagune jakin hau inoizkoa baino aproposagoa bihurtzen dutenak: nazioarteko testuingurua, 94ko lehen sei hilabeteetako koiuntura politikoak izaera egokia izatea edota irtenbide benetako eta iraunkorrerako dagoen nahi sozial nagusia. Gizarteak onartuta dauka gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzen direla eta babestu egiten du honako ideia hau.

Asmo hauek eraginda, gurekin bat egiteko gonbitea luzatzen dizugu, adiskide, historikoa izan daitekeen mementu hau zure ekarpenaz ere eraiki dadin.

JESUS GARMENDIA,
JOSE RAMON ELORZA
ETA KOLDO RODRIGUEZ.

Egiten duzu bijilia garizuma garaian?



**Vidal Larraz
Langilea (56 urte)**

Batzuetan ahaztu egiten zait, baina normalean ostiraltan bijilia egiten dut.



**Maria Jesus Laka
Azokako langilea (46 urte)**

Egun batzuetan ahaztu egiten zait, baina normalean bai. Horrelaxe erakutsi ziguten gurasoek, eta horregatik egiten dugu.



**Antonio Sanchez
Langabetua (32 urte)**

Bijilia urte guztian zehar egiten dut, ez baitut haragirik sekula jaten.



**Isabel Barrena
Etxekoandrea (58 urte)**

Bai, etxean guztiok egiten dugu, protestarik gabe.



**Pedro Duro
Korreoseko langilea (46 urte)**

Nik ez, ohiturarik ez baitut. Etxean, berriz, egiten dute bijilia.



**Mercedes Bolinaga
Etxekoandrea (67 urte)**

Neuk bai, baina etxean nahiago dute errezatzea bijilia egitea baino.



**Casimiro Hernandez
Jubilatua (77 urte)**

Andreak agintzen didalako egiten dut, baina ez neuk nahi dudalako.



**Paulina Martín
Etxekoandrea (46 urte)**

Bai, etxean guztiok. Ohituragatik egiten dut, baina egiten ez badut, ez da ezer pasatzen.



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
LIPOSUKZIOA.**

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAleta TFNOA: 79 13 54

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualetoia 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 25
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

Larunbata 26
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

Igandea 27
 Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.

Astelehena 28
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Asteartea 1
 Egunez eta gauzez: Camacho. Oxirondo.
 Egunez 22.00ak arte: Irizar. Erguin.

Asteazkena 2
 Egunez eta gauzez: Puy. Barrenkale.
 Egunez 22.00ak arte: Amezua. Sta. Marina.

Osteguna 3
 Egunez eta gauzez: Guallar. San Antonio.
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz. Magdalena.

25 OSTIRALA

ZINEA
 "El Mariachi". 7etan eta 10etan.

MAGNETISMOARI BURUZKO HITZALDIA
 Gaia: "Magnetismo Metafisikoa".
 Hizlaria: Mikel Mugika de Leiba, Gasteizko "Devayauti" zentrukoa. Monterronen arratsaldeko 7etan.

26 LARUNBATA

ZINEA
 "El Mariachi". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

AEDko LUDOTEKA IBILTARIA
 Uribarriko auzoan. Uribe Auzoko aretoan. Goizeko 10.30etatik ordu bata t'erdietara.

SINADURA BILKETA
 Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatzako Elkarriko tailerrek, sinadura bilketa egingo dute Eskoriatzan. Goizeko 11.30etatik ordu 2etara.

27 IGANDEA

ZINEA
 "Historias de la Puta Mili". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

MENDI IBILALDIA ETA KONTZENTRAZIOA
 Deba Bailara plataformak eta Leintz-Gatzagako udal-txek antolatuta. Autopistaren aurka eta Deba Bailarako komunikabideak hobetzearen alde. Ibilaldia goizeko 10etan hasiko da Gatzagan eta plazan egingo den ekintza batekin bukatuko da. Arrasateko joango direnak, 9,30etan bilduko dira Portaloian kotxez joateko.

MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSAK

"Euskara Ikastea Denon Eskubidea" lemapean, martxoaren 5ean AEK euskaltegiak manifestazio nazionala egingo du Bilbon. Manifestazioa La Casillatik aterako da arratsaldeko 5.30etan. Arrasateko AEK autobus antolatu ditu Bilbora joateko. Autobusa 3.30etan aterako da arbolapetatik. Autobusez joan nahi baduzu, erosi txartela ostirala baino lehen AEK, Jai-Zale edo AEDn. Prezioa 800 PTA.

MENDIKO IRTEERA UMEENTZAT

Asentziara. Irteera goizeko 9etan, Aretxabaletako Partenoitik. Murruxiko Mendizale Elkarteak antolatuta.

MURAL IKASTAROA

AEDko Gazte Mobidiek antolatuta. Ikastaroa martxoaren 12an hasiko da eta bederatzi zapatutan zehar emango da. Emalea: Amaia Martiartu. Izenemateak martxoaren 3a baino lehen, AEDn, 2.000 PTA ordainduz.

HISTORIAS DE LA PUTA MILI

OTANera joan den general espainiarrak, mesprezua sentitzen du beste aliatuengandik. Honi aurre egiteko, patrulla bidaliz, OTANek zabaldu behar duen base bat boikoteatzea erabaki du. Baina ordenagailuan arazoak sortzen dira eta patruila onena bidali beharrean, txarrena bidali du. Pelikula honek Espainiako soldaduska barregarri uztea du helburu.



ARGAZKI ERAKUSKETA

Haratuzteak argazki rallyko argazki irabazleen erakusketa. Harresi Aretoan. Egunero 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, goizez 12etatik ordu 2etara eta arratsaldez, 6etatik 8etara.

28 ASTELEHENA**ZINEA**

"Historias de la Puta Mili". 7etan eta 9.30etan.

ANDALUZIA EGUNA

Andaluzia eta Euskal-Herriaren omenez, ardoa edango da arratsaldeko 8etan Al-Andalus elkartearen. Ondoren korroak Andaluziako eraria abestuko du.

60KO KINTOEN OSPAKIZUNAK

60ko kintoek martxoaren 12rako hainbat ekintza antolatatu dituzte. Eguerdiko 12.30etan meza izango da eta ondoren bazkaria, Leintze elkartearen. 60. urtean jaiotakoa bazara eta egun hau ospatu nahi baduzu izena eman telefono hauetara deituaz: Karmelo Amozarrain (792534), Adolfo Gómez (791973) edo German Morenori (796164) telefonora.

**ANDALUZIA EGUNA**

Datorren astelehenean Andaluzia eguna dela eta, ospakizun batzuk antolatu ditu Al Andalus elkarteak. Egun handia berriz, martxoaren 5ean izango da.

1 ASTEARTEA**ZINEA**

"Historias de la Puta Mili". 7etan eta 9.30etan.

BIDEO EMANALDIA ETA MAHAINGURUA

"Maia Herriaren Erresistentzia". Gaiak: Txiapas, bake bidean?; matxinatzeko arrazoiak eta CPRtako (Comunidades Populares de Resistencia) bizimodua. Hizlariak: Axu Cardenal eta Imanol Larrea, Guatemalan egondakoak. Monterron kultur etxean, arratsaldeko 7etan. AEDk antolatuta.

HITZALDIA

Aita Querbesen Jaiotzaren 2. urteurrenaren barruan. San Viatorreko guraso eta irakasleei zuzenduta. Gaiak: Aita Querbes eta Asoziatuak. Hizlariak: Tomas Aranberri, Petri Rodriguez eta Dioni Alarcia. San Viatorreko Aretoan, 3. solairuan, arratsaldeko 6.30etan.

2 ASTEAZKENA**ZINEA**

"Entre el cielo y la tierra". Gaueko 9.30etan Amaia antzokian. 300 PTA. Antolatzaileak: Emakumeen Asanblada, Egizan, Ekin, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua eta Emakumearen Udala Saila.

HITZALDIA

San Viatorreko guraso eta irakasleei zuzenduta. Gaiak: Viatorristak munduan zehar, Viatorristak Arrasaten. Hizlariak: Cosme Salazar eta Goio Eskibel. San Viatorreko Aretoan, 3. solairuan, arratsaldeko 6.30etan.

3 OSTEGUNA**ANTZERKIA**

Oihulari Klow taldearen: "Mujer Klowtrapublicidad". Gaueko 10.30etan Amaia antzokian. 500 PTA. Antolatzaileak: Emakumeen Asanblada, Egizan, Ekin, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua eta Emakumearen Udala Saila.

46KO KINTOEN OSPAKIZUNAK

46ko kintoak martxoaren 5ean bilduko dira. Eguerdiko ordu batean Frantziskanoren elizan meza izango da eta ondoren bazkaria Musakolako Hostalean. Izenemateko dei egin Jose Unzueteri (794739) edo Santos zeziagari (792373) telefonora.

"MAIA HERRIAREN ERRESISTENTZIA"

Bideo emanaldia eta mahaingurua antolatu ditu astearterako AEDk. Monterronen, arratsaldeko 7etan



“Hori dela eta, lan-harremanetarako marko autonomikoa solidaritatearen errebindikazio handi bat da langile galiziar, kanariar eta katalanentzat (eta baita hori erreklama dezaketen beste komunitate batzuentzat ere), garapen eta zibilizazio-sujeto izateko duten eskubidean diskriminatuta daudenak.


Gaur Hego Euskal Herrian aipatu beharra dago euskal langilegoa Estatuko gainerako langilegoarendik bereizten duena opresio naziola dela. Lan-harremanen marko autonomoa babesteak eta Autodeterminazio eskubidera darman negoziazio politikoaren prozesua laguntzeak eraman-go gaitu langileen arteko errezelo, inkomunikazio eta enfrontamendua desagertaraztera”.

Antxon Mendizabal, Sagra Lopezek 93-2-15 egin

“Hala ere, garaiz hartu zen erabakia. Hamabiak aldera, ‘hau bukatu da’ esanez, bueltako bidean ginela abisatu genien behekoiei. ‘Lasai, poliki jaitsi, kontuz ibili, presarik ez dago...’ Ia aspertu arteko erretolika entzun genuen baina halako egoeran, memoria freskatzeak ez du kalterik egiten” (...)

“Bili eta Fernando haserre genituen zai, walkiak noizean behin erabiltzeko jasotzen direla esanez, eta ez motxilan pasiatzeko. Horma barrenera Joseba, Ongtxu eta Gopal heldu ziren, dena eta denok jasotzera eta Kontxi eta Kepak pentsa zer otordua moldatuko zuten. Berriz itzultzeko irrikaz gara geroztik”.

Felix Inurrategik



“Informazio argi laburbilduan, informazio ugarian eta koloreetan oinarritua; euskaraz irakurtzen gutxi ohitutako jendearentzat burutua. (...) Honelako egunkari batek, euskarazko komunikabideekin (Euskadi mailakoekin eta herrietakoekin) osatutako multimedia antzeko enpresa sendoa eskatzen zuen, jakina. Arrasatearrek, geroztik, herri mailan egiten duten bezalaxe”

Mikel Atxagak 94-1-20



Zergatik da garrantzitsua intsumisioaren aldeko plataforma eratzea?

Borroka antimilitarista ez da intsumisioen lana bakarrik. Intsumiso ez izan arren, alde dauden laguntza izatea ere garrantzitsua da, arazoa gizarte osoarena baita. Beraz, aldaketa prozesuan ez dira intsumisoak bakarrik murgilduta egon behar, jendeak laguntza eman behar du.

Antimilitariston ideia zera izan da, intsumisioaren alde dagoen jendea batu eta era honetan plataforma osatu. Solidaritatea eskeiniko duen laguntza taldea eratu nahi dugu. Talde hau Arrasateko Antimilitarista taldeaz harremanan egongo da eta guztien artean plataforma iraunkorra osotuko dugu, guztiok batera ekintzak antolatzeko.

Plataforma eratzen hasi den arren eta oraindik gauzak zehaztu gabe dauden arren, seguruenik mobilizazio egutegia finkatuko dugu. Besteak beste, manifestazioetara joango gara, mobilizazioak antolatuko ditugu, epaiketetara joango gara eta behar izanez gero, plataformako norbaitek testigo gisa parte hartu beharko du epaiketaren batetan. Baina ekintzak ez dira hemen amaituko, uda garairako hainbat intsumiso gartzelan sar ditzakete eta. Beraz helburua ez da epaiketa garaian laguntza ematea bakarrik.

Bestalde, platforman sartu nahi ez duenak eta intsumisioaren alde dagoenak, lagun diezaiguke beste modu batean ere. Intsumisioaren aldeko sinadurak biltzen hasiak gara, ondoren epaiketetan aurkezteko. Beraz, intsumisioaren alde bazaude, eman zure izena toki desberdinetan egongo diren sinadura orrietan.



Ander Santiago
Arrasateko Antimilitarista
Taldekidea

CE ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak
Olarate kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA
Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

UNIVERSITY OF CAMBRIDGE
AZTERKETAK

- **PRELIMINARY ENGLISH TEST**
- **FIRST CERTIFICATE**

* Azterketa lekua: EIBAR
* Azterketa eguna: 1994ko EKAINAK 14 eta 18
* Matrikularen egunak: MARTXOAREN Itik 10era.
* Matrikula eta Informazioa: Parlance

Ferrerias kalea, 11 Behea
Tfnoa: 77 06 83 ARRASATE

Intsumisioaren aldeko plataforma

Asteartean, Monterrongo aretoa bete egin zen antimilitaristek intsumisioaren aldeko plataforma eratzeke egindako deiarekin. Hainbat elkarte eta partikular azaldu ziren bilerara, eta bertan manifestu bat kaleratzea erabaki zen, eta sinadura bilketa egitea ere onartu zen, aurki epaituko dituzten intsumiso arrasatearrei elkartasuna adierazteko. Antimilitaristek mozio bat aurkeztu dute hurrengo plenorako. Juizioen kostoa udalak ordaintzea eskatzen dute antimilitaristek, eta Gurutze Gorriarekin eta Caritasekin ez kolaboratzea ere bai, Ordezko Zerbitzu Soziala babesten dute eta.

Aretxabaletako intsumisoak

Arrasatekoek bezala, Aretxabaletako intsumisoek ere bat egin dute datozen epaiketetara begira, eta mozio bat aurkeztu dute bertako udaletxean. Lau intsumiso atxabaltar epaituko dituzte martxoan: Felix Iñurrategi eta Jon Ander Loidi mendizale ezagunak, Julen Larrinaga, eta Andoni



Asturiarrekin elkartasuna

Asturiasko Duro Felguera lantegiko langileek daroaten borrokarekin elkartasuna adierazteko, Arrasateko 40 bat lagun joan ziren hara autobusez joan den larunbatean. Lantegiaren bideragarritasun planean aurrikusitako despidoen aurka ari dira protestatzen asturiarrak, eta joandako arrasatearrek ohar batean diotenez, "han ere, Euskal Herrian gertatzen den bezala, patronalaren ondoan dago Gobernu". Asturiasko manifestaldiko pankartak honela dio bablez: "Elkartasuna da herrien bihotz-beratasuna. Ongi etorri!".

Urzelai, Arrasate Telebis-tako lankidea. Bestetik, igandean Donostian Ertzaintzak intsumisioen aurka egindako kargako intzidentetan, zenbait atxabaltar egon ziren 15 zaurituen artean.

Arantzazun, bakearen alde

Jende ugari bildu zen

Arantzazun bakearen aldeko otoitzaldian. Gipuzkoako elizbarrutiak antolatutako ekitaldi honetan Arrasateko herritar asko ere izan ziren. Donostia, Loiola eta Arantzazun aldi batera egin zen otoitzaldia, eta Jose Maria Setien gotzaiak eman zion hasiera hitzaldi batez. Otoitzaldien bidez, sinismena eta bake-nahia lotu nahi zituen elizbarrutiak.

Autopistaren aurkako ibilaldia


Maltzaga-Urbina autopistak zeharkatuko lituzkeen parajeetan zehar mendi ibilaldia antolatu zuen joan den igandean Deba Bailara Bizi-Bizirik taldeak. Gatzagatik irten eta inguruak ezagutu zituzten ibiltariek, autopista proiektuak arriskuan jar ditzakeen ingurune ekologikoak hurbiletik ikusiz. Deba Bailara Bizi-Bizirik eskualdeko zenbait talde ekologista eta partikular biltzen dituen mugimendua da.

JAIOTZAK

- Ainhoa Barreiro Sanchez. Otsailaren 14ean.
- Kenan Perez Lopez. 16an.

HILDAKOAK

- Benigno Telleria Bewrasategi. Otsailaren 15ean. 79 urte.
- Salvador Gil Olmo. 17an. 90 urte.
- Epifanio Alday Otaduy. 17an. 82 urte.
- Francisco Manzanos Fernandez. 21ean. 53 urte.
- Gregorio Rodero Hernandez. 17an. 61 urte.
- Carmen Arrazola Isasmendi. 18an. 94 urte.
- Concepcion Ezkurra Zubizarreta. 18an. 82 urte.
- Jose Ortiz de Lazkano Larrea. 20an. 86 urte.
- Carmelo Abarrategi Madinabeitia. 19an. 54 urte.
- Ramon Perez Rivada. 21ean. 41 urte.



HIZKUNTZAK-IDIOMAS

LARUNBATETAKO INGELESEZKO IKASTARO INTENTSIBOAK HASI BERRI DIRA!!

- MAILAK:**
- Hasierakoa
 - Oinarrizkoa
 - Erdi-mailakoa

Oraindik garaiz zabilta!! Eman izena lehenbait lehen

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



EUKENI OLABARRIETA *

Ariketa egitearen garrantzia

Gaur egun inork ez du zailtzan jartzen erregularatasunez ariketa fisikoa egitea oso eraginkorra dela osasuna hobetu eta bizi-kalitate ona izateko.

Gobernariak eta administrazioak beren publizitate kanpainetan osasuna sustatzeaz hitz egiten dute, bizi-kalitatea hobetzeaz, baina praktikan eritetxe edo osasun-zentru asistentzial gehiago sortzera mugatzen dira; eta jakina da hauen zeregin nagusia osasunari egin dako kalteak konpontzea dela. Baina ezer gutxi egiten da osasuna bera sustatzeko.

Osasuna ez da estatikoa, gizakia eta honen ingurunea etengabeko aldaketa-prozesuan daude; eta osasuntsu bizi izateak gizakiaren eta honen inguruko guztiaren — espazio fisiko, sozial, kultural, hitz batean, ingurugiroaren — arteko oreka zaintzea esan nahi du. Eta oreka edo desoreka honen emaitza izaten dira osasuna eta gaixo-

tasuna.

Faktore askoren menpe dago osasuna. Piramide baten gailurra da, eta piramidearen oinarrian hezkuntza, komunikabideak, etxebizitza, askatasuna, hirigintza, bizi-maila, gizarte-laguntza, osasuna-laguntza, elikadura eta abar dago.

Osasuntsu-gaixo egoera, bizi garen eta sozializatzen gareneko gizarteetan sortzen diren eragin eta determinatzaile ambiental, genetiko eta sozial guztien emaitza dinamiko, aldakor eta iraunkorra, indibidual eta kolektiboa da; eta eragin eta determinatzaile horiek gure gizarte-ekologia aldatzen dute: gaixotasuna edota, osasuna sortarazten dute gizabakoarengan.

Aurrerapena eta garapena kontzeptu ezberdinak dira, baina batzuetan elkar nahasten eta bereiztu gabe erabiltzen direnak.

Aurrerapenak aurrera joatea esan nahi du, gure bizi-

kalitatea eta ongizatea hobetzea, gure bizimodua alaiago eta atseginago bihurtzea.

Garatzea haztea da, zabaltea, gehitzea, baina beti ez da aurrera egitea; izan beharko luke, baina ez da. Batzuetan garapenak, eta ez dago oso urrutira joan beharrik, ez du osasuna eta bizi-kalitate areagotzen. Alderantziz, hauen hondamena eta kaltea ekartzen du sarritan.

Gaur egun garapenaren eta mendebaldeko zibilizazioaren gaixotasunez hitz egiten da. Aurrerapenak bizi-baldintzen hobekuntza eta zenbait gaixotasunen atzerakada ekarri du. Garapenak infartoak, bapateko heriotza, burmuineko odol-basoetako istripuak, minbizia, eta gaitz hauekin elkartzen diren arrisku-faktore guztien gehikuntza: loditasuna, arterietako hipertentsioa, sedentaris-moa, estresa eta gehiegizko droga kontsumoa, gizarteak onarturiko nahiz debekaturiko droga.

Arterosklerosia eta minbizia, gizarte aurreratueta bi heriotza-eragile nagusiak, oso loturik daude dieta eta ingurugiroarekin, eta batez ere kategoria eta koipe gehiegizko dietekin, estres, arterietako hipertentsio, tabakismo, loditasun eta abarrek; labor esateko, gure gizarteetan hian presentzia handia duten arrisku-faktoreekin, sedentarioen artean bereziki. Izan ere, sedentaris-moa dago patologia guzti hauen oinarrian.

*** MEDIKUA,
TRENBIEDA BERRESKURATZEA-
REN ALDEKO TALDEKOA**

USTEAK USTE

HITZAK GASTATU ARREN
Hainbat gairi buruz idatzi nahi eta, berbak gasta-tuta daudela pentsatu izan dut sarritan. Eta hala ere idaztea nahi, beharra sentitu. Soldadutza, antimilitarismoa, intsumisioa... gai klase horretakoak pentsetan zaizkit, inguruan harapatzen nauelako edo. Bai, inguruko askoren bizitza baldintzatzen dutelako, jarrera hartzea eskatzen duelako, inguruko bizitza markatu, zulatu, urratu egiten duelako (bestela galdetu domekan Nonostiarra joan ziren mutili).

Esan gabe doa kontzientzia eragozle eta intsumisioen jarrera mirestu egiten dudala, euren barruak esaten diena egiten dutelako, solidaritatea praktikara eramateen dutelako, euren komentzimentuak salgai jartzen ez dituztelako... baina tristea iruditzen zait oraindik famatuen lekukotza eta autoinkulpatuak behar izatea (zeren "kulpa" dauka ba inork?), norbere askatasunetik hartutako erabaki bat "justiziaren" aurrean defendatzeko. Famatu baten lagun izateak inmunitatea emango balu bezala. Eta bitartean, gure inguruan daude "amari disgusto bat ez ematearren", "soldadutza hainbat lasterren gainetik kentzearren", "zer da ba urtebete izorratuta pasatzea"...

Eta batzuk gartzelaren zain dauden artean beste batzuk handik irteteko zain daudela esango digute gero. Amedo oportetan egon dela. Hementxe gastatu zaizkit berba guztiak, akabo.

ARANTZAZU LOIDI

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



AEDko zuzendaritza, aurreko batzar orokor batean.

AEDk auzoetara zabaldu nahi du gazte lokalen bidez

Aste honetan, ostegunean, urteko batzar orokorra egin du AEDk. Batzarrean txosten bat aztertu zen, "AEDren jarduera eta norabidea datozen urteoi begira" izenburuaz. Txosten horretan, aurrera begirako premia eta jokabideak aipatzen ditu zuzendaritza batzordeak.

Besteak beste, beste bi lan-talde berri sortzeko proposamena ageri da. Batetik, auzoetara zabaltzeko beharra lehen mailakotzat jotzen da, eta horretarako auzoetarako talde bat egitea proposatzen da. Beste talde berri bat, kulturakoa litzateke, gaur egun antolatzen diren kultur ekintzak bateratzeko.

AEDren jarduna auzoetara zabaltzeko plangintza bat nahiko aurreratuta dauka AEDk, udal Gazte Batzordearekin. Auzoetan gazteentzako lokalak irekitzeko asmoa dauka Gazte Batzordeak: dagoeneko martxan dago Santamainako esperientzia, ia prest daude San Andreskoa eta Musakolakoa, eta Erguin-Uribarrirako ere pentsatuta dago lokala. *Gaztetxo Txoko* edo egoitza hauek ez

dira bilgune soilak izango, eta aktibitate programa batez hornituko ditu Gazte Batzordeak, AEDrekin elkarlanean. AEDren zuzendaritzaren ustez, "Gazte Txokoaren proiektu hau atea izan daiteke auzo bakoitza ezagutu eta ondoren beste sail batzuekin entsaiuak egin ahal izateko". Lokalok, "lau lan-leku edo motor" izan litezke aurrera begira.

Gazteekin egin beharreko lana funtsezkotzat jotzen du zuzendaritzaren txostenak; eta aurrera begira, haurrentzako ekintzen arloa, bere kasa erakundetu egin litekeela —"ARKOren adibideari jarraituz"— aipatzen da.

Txostenak markatzen duen beste helburu bat udalarekin hitzarmen plurianuala lortzea da, urtero hitzarmena berriro beharrrak edo "aurrekontu onarketen atzerapenek elkartearen jarduera baldintza ez dezan". Bazkideak erakartzen segitzeko premia ere sentitzen du AEDk, babes morala eta ekonomikoa ere lortzeko. Diru kontuak egoki baliatzeko, AEDk martxan jarri du dagoeneko ekonomia talde bat.

Bake epaitegi berria

Dagoeneko amaituta daude Arrasateko bake epaitegi berriaren egokitze obrak. Epaitegi berria Zuloaga kalean dago, erdikaldetik askoz ere hurbilago eta erosoagoa, gaur egungo Aldaigaingo epaitegiarekin alderatuta. Batetik besterako trasladio datorren astean egingo da seguruenik. Hala ere, bake epaile berria aukeratzeko prozesua irekita dago oraindik.

Aldaiko 'ultimatuma'

Aldaiko hilerri zaharrek panteoietan ehorzketak egiteko baimen-luzapena astelehenean amaitzen da. Panteoiaik dituzten familien ordezkariak, Monica de la Maza abokatuak, beste luzapen bat eskatu dio udalari, eta asteleheneko Gobernu Batzordean aztertuko da eskaera.

ITV Bergaran

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT edo ITV erdaraz) hurbilago pasatzeko aukera dago orain, Bergaran ireki dute eta horretarako tailerra. Tailer berria Amillaga auzoan dago, San Lorentzo poligo-noaren aurrealdean, eta 2.800 PTA kobratzen dute azterketa. Lege berriarekin, 4 urteko autoek ere igaro behar dute ITV azterketa gaur egunean. Ordua eskatzeko, 760490 telefonora egin dei.



- Garbitasun orokorraketa mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA



Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Hamar taxistak dute lizentzia Olarte kaleko geltokian.

Zerbitzua saturatuta dagoela uste dute taxistek

Arrasaten beste taxi lizentzia bat eskaintzearen aurka daude Arrasateko taxistak. Egindako lehiaketa publikoa bertan behera uzteko eskatu dio udalari Gipuzkoako Taxisten Federazioak. Profesional hauen ustez, orain dauden hamar taxiekin, nahikoa eta sobera dago zerbitzua atenditzeko, krisi ekonomikoak alor honetan ere eragina izan baitu.

Taxistek daukaten beste arazo bat inguruetatik etorritako taxisten kompetentzia da. Izan ere, enpresa eta kooperatiba askotan, kanpoko jendea erabiltzen dute bisiten bidaia atenditzeko. Ondorioz, taxistak, egu-

nean 12 edo 14 ordu egoten dira Olarte kaleko geltokian.

Udalak dioenez, bere garaian taxistek onartu egin zuten beste plaza hori lehiaketa-ara ateratzea. Taxisten esanetan, orain txofer dagoen taxista batek titularitatea lor zezan onartu zuten eskaera, taxien kopurua handituko ez zelakoan.


Edozein modutan, plaza bat gehitzea eta lehiaketa publikoa egitea aho batez onartu zuen udalbatzak eta orain adjudikazioa egitea da geratzen dena. Lau eskaera aurkeztu dira, eta horien artean erabaki beharko du udalak lizentzia nori eman.

Gurutze Gorriaren premiak

Deba Garaiko Gurutze Gorriak ibilgailu berri baten beharra dauka erreskate-lanetarako. Orain arte Land-Rover bat erabili izan dute, baina hori hondatu egin da, eta ibilgailu berriak 7,6 milioi PTA balio ditu. Bestetik, San Prudentzian duten etxea konpontzeko 8 milioi ere behar ditu Gurutze Gorriak. 94rako duen 11 milioi PTAko aurrekontuarekin, zerbitzu arrunteei besterik ezin die eutsi Gurutze Gorriak, ibilgailu berri barik eta egoitza konpondu barik.

Ingurugiroarekiko ardura Eroskin

Datozen urteetan ingurugiroarekiko kezka handitzeko asmoa du Eroskik. Hurrengo hiru urteetarako plan bat daukate martxan, argindar kontsumoa %25ean jaisteko, kartoi erabilera ere beste %30ean jaisteko, eta hozgailuetan CFC gasak (ozonoarentzako kaltegarriak) kentzeko asmoa ere badute.



URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Gaztetxea intsonorizatzea ezinezkoa da udalaren ustez.

Bizilagunek eta Gaztetxeak akordioa lortu dute

Gaztetxearen eta inguruko bizilagunen arteko tirabira baretu egin da, alde biek udal ordezkariekin izandako bilera baten ondorioz. Gaztetxearen inguruko bizilagun talde batek protesta-gutuna bidali zuen udaletxera urtarrilean, gaztetxean konponketak egiteko udalak 3 milioi PTAko gastua egin zuelako. Konponketa puntualak beharrean, birmoldaketa oso bat eskatzen zuten bizilagunek.

Bizilagunen eskaera nagusia Gaztetxea intsonorizatzea da, "gure osasuna suntsitzen duen eta bizimodua desorekatzen digun soinu esplosibo hori" isilarazteko, publiko egin-dako agiri batean azaldu zuten.

Udalaren artekaritzaz bilera egin zuten

bizilagunek, Gaztetxeako AGAKOko kolektibokoek, alkatearekin eta Gazte Zerbitzuko arduradunarekin. Alkateak azaldu zuenez, Gaztetxearen intsonorizazioa ezinezkoa da oraingoz, obra handiegia litzatekeelako eraikuntzaren erabilera definitiboa erabakitzeko dagoen honetan. Hortaz, zaratak baretzeko modua kontzertuen ordutegiak moderatzea da, eta konpromezu horri eutsiko diotela adierazi zuten AGAKOkoek.

Kontzertuak, beraz, gaueko 12ak baino lehenago amaitu daitezten saiaturako dira Gaztetxean, eta, bide batez, leihoak ere konponduko dituzte, zaratak ahal den neurrian kontrolatzeko.

Unibertsitate eta enpresaz jardunaldiak

Eskola Politeknikoa europar mailako jardunaldi batzuen egoitza izango da ekainean. Unibertsitate eta enpresen arteko kooperazioaz eta enplegu sorkuntzaz izango dira jardunaldiok, eta Europako Komunitatearen COMETT programaren babesa izango dute. Ekainaren 13-14an izango dira topaketak, Jose Antonio Ardanza lehendakariak irekiko ditu, eta Eskolaren 50. urteurrenaren ekitaldien barne geratuko dira.

Ikerlanen lana NASarentzat

Ikerlan NASA agentziarentzat egiten ari den SBS proiektuak amerikarren prestatutako lehen test zorrotza gainditu egin du. Biobereizketa espaziala ikertzeko proiektu teknologiko honek proteinak mikro-grabitate egoera garbitzeko balio du, eta Spacelab espaziountzian frogatuko da aurtengo uztailean. Europako erakunde talde baten elkarlanaren ondorioa da Ikerlanen enkargu hau.

• Maia Herriaren Erresistentzia •

- * Chiapas: Bake bidean?
- * Matxinatzeko arrazoiak
- * C.P.R. etako bizimodua

BIDEO EMANALDIA eta MAHAI INGURUA HIZLARIAK

- * Axua Cardenal Guatemalan Comunidades Populares Resistencia batean bizi izandakoa
- * Imanol Larrea Guatemalan kooperante aritutakoa

NOIZ: Martxoak 1, asteartea
NON: Monterron Kultur Etxean
ORDUA: Arratsaldeko 7etan





Hamabost egun barru zabaltzea espero duten jatetxe txinatarreko langileak, Arrasaten dira. Argazkiko eskumaldean dagoen emakumea, jatetxearen jabeetarikoa bat da. Haur txikia eskuartean duena berriz, bere anaia eta beste emakumea,

andrea. Gainontzekoak lagunak dira eta hauek ere lan egingo dute jatetxean. Baina Arrasatera bizi izatera etorriko diren guztiak ez daude hor. Jabearen seme-alabak falta dira, orain Txinan baitaude urte berria ospatzen.

Roberto Etxeandia eta

Edurne Larrinaga atxabalta-
rrak urriaren 23an ezkondu
ziren. Zorionak bioi!



Joan den larunbatean, inguruko hainbat jende pakearen aldeko otoitzaldia egitera hurbildu zen Arantzazura. Arrasatetik ez zen autobusik irten, eta joan zirenak

kotxez heldu ziren. Argazkian ageri den jendea ikusita, badirudi helduak bakarrik joan zirela baina ez zen horrela izan, gazte asko joan baitziren.



Deba Garairako
PELUKERIA eta ESTETIZISTA
behar ditugu.
Interesatuak bidali
kurrikuluma.

Salbatierrabide, 32. -2.D
01007 Gasteiz
j. Martinen izenean

• **ARTEA** •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

“**PAL**”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Juan Cruz Guridi pilotari arrasatearraren aldeko meza izan zen igandean Arrasaten. Juan Cruz Mexikon bizi zen eta bertan hil zen otsailaren 9an. Argazkia berriz, 1927an Miamin

ateratakoa da. Orduan Euskal-Herriko hainbat pilotari bertara joan ziren. Juan Cruz, goiko lerroan ezkerretik hasita bostgarrena da. Batzuek ezagutuko duzue.



Jesus Mari Idigora (Piti) eta **Ana Merchan** azaroaren 6an ezkondu ziren. Ezkon bidaian Mexikora joan ziren. Zorionak bioi!

IZEN PROPIOAK

● **Unai Bergaretxe**, 22 urte, arrasatearra, Elkarri taldeak antolatu duen Ikusi-Makusi tonbolan komertzial lana egingo du. Unai Lanbide Heziketan maestria ikasi zuen.

● **Amaia Altuna**, 33 urte, arrasatearra, Udal Euskaltegiko idazkari pedagogikoa da. Amaiak magisteritza ikasi zuen eta Udal Euskaltegiko irakaslea ere bada. Karmele Zuazubizarren ordezkari izan da lanean.

● **Izaskun Altube**, 26 urte, aretxabaletarra, Radio Correion hasiko da lanean. Izaskun kazetaritzan lizentziatua da eta aurrez Antena 3 telebistako publizista izan zen.

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

**Mendi
taberna**

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

LORAMENDI KIROLAK

**AZKEN EGUNAK
ZAPATILEN
BEHERAPENETAN**

ZATOZ


%20

**ZENBAKI
SOLTEETAN**

UDABERRIKO MODA BERRIA


%50

IKUSTERA!!



*Agustin Larraxaga nauze, Etxe-andiko
sukaldaria. Zuen ezkontza, edo edonolako
ospakizuenetarako menua prestatzen gustora
lagunduko dizuet. Etorri, zuek esan prezioa eta
menua utzi zure kontu.*

OHARRA:
Galdetze hutsagatik
andregaiak oparia ja-
soko du



Zuen ezkontza
gurekin
ospatzen
baduzue,
EZKONTZAKO
CAVA
GURE
KONTU.

Anna de Codorniu

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Lehen faseari agur

Lehen faseko azken jardunaldira iritsi gara. 80 taldeetatik, 32k bakarrik dute aurrera egiteko aukera, eta horietako 30 ziurak dira jada. Pare bat taldetan lidergoa kolokan dago, gainera. Matematikoki, B taldeko Argi Ibilik bakarrik dauka txapeldun postua ziurtatuta, nahiz eta bi puntuko zigorra daukan.

Honenbestez, faborito gehienak ondo

portatu direla esan dezakegu. Sorpresatxoren batzuk ere izan dira (Tovarix bezala), eta txapeldun zahar batzuen paper txarra ere agerian geratu da. Adibidez, Sibilius Roverrena edo Adelaidarena. Azken talde hau, kanporatuta geratu da azken partidura bi jokalaria besterik ez zirelako azaldu. Ea datorren urtean zelako zortea daukaten.



PEUGEOT - TALBOT

Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	18	17	0	1	78	17	34
SUM. UGARTE	18	17	0	1	115	28	34
ARLUTZ	18	13	3	2	81	31	29
UGLYS TXINATO	18	12	2	4	76	88	26
JEY JULIWER	18	10	5	3	67	34	25
ZOTZ	18	11	3	4	59	51	25
SOKOAKOAK	18	11	2	5	78	59	24
ANBOTOSTE KT	18	10	3	5	54	33	23
BIZKORRAK AVE. T.	18	8	3	7	62	49	19
KOKKAS	18	8	2	8	52	53	18
BERANGO SUKALD.	18	8	1	9	62	54	17
EUSKAL INDARRA	18	7	1	10	78	82	15
IKATZ	18	5	2	11	57	94	12
BAYERN LENITZ	18	6	0	12	40	75	12
AUF DEM KOFFER	18	5	1	12	40	69	11
RESAKAS	18	3	3	12	40	59	9
WHISKERIA LINDE	18	4	1	13	42	115	9
FRAGUEL GOL	18	2	3	13	41	69	7
ALLA KUIDAUS	18	3	0	15	26	89	6
ETXE MOBILIARIO	18	2	1	15	44	83	5

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	18	17	1	0	118	43	35
ZULOAK	18	13	3	2	66	35	29
DANOK LAGUN	18	10	8	0	48	24	28
BUKANAK	18	12	2	4	77	40	26
IRATI STS	18	10	5	3	82	37	25
LEINTZ GARAGAR.	18	11	3	4	82	37	25
ARR. KIROLAK	18	12	0	6	75	46	24
TRONKOTEAK	18	10	2	6	52	55	22
ALPEN KRAUSSER	18	10	2	6	78	99	22
BETRAYER	18	9	2	7	81	55	20
OJO AVISORE	18	5	4	9	72	77	14
GANBELAS	18	7	0	11	51	57	14
NOTXINGAN FLO.	18	5	4	9	52	67	14
EXC. LETE	18	4	5	9	43	53	13
OOOLE	18	5	1	12	51	82	11
DIEGO ANTONIO	18	5	1	12	54	67	11
FANCY BOIS	18	3	4	11	49	76	10
KOPYPREST	18	3	2	13	50	87	8
MONTERREY Z.B.	18	2	2	14	48	118	6
ATXANTA KE TE...	18	1	1	16	29	103	3

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
LOS HEREDIA	18	14	1	3	67	27	29
FOSFOROS	18	14	1	3	87	33	29
MIKELOS	18	13	2	3	79	36	28
NABARROS	18	12	4	2	69	34	28
ARR. KRISTALDEGIA	18	11	3	4	63	35	25
KAKAJAURI	18	9	5	4	63	39	23
PEPELUS	18	9	2	7	65	46	20
MOTZ	18	9	2	7	80	51	20
TXOKO TABERNA	18	9	1	8	41	52	19
LOS DALTON	18	7	4	7	57	59	18
FOTO IMAGEN	18	7	3	8	49	55	17
ADELAIDA HAIZEA	18	6	3	9	41	51	15
MZK GANBELAS	18	6	2	10	53	58	14
HIREI	18	6	2	10	58	65	14
KIRTEN TROPEL	18	5	4	9	38	56	14
LEYA	18	6	1	11	56	90	13
POTROSORRI	18	6	0	12	36	49	12
SIBILIUS ROVER	18	4	0	14	23	64	8
BORROCKN ROLL	18	4	0	14	41	90	8
CORINTO TABERNA	18	3	0	15	37	113	6

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULUS	18	14	4	0	132	44	32
POTROAK LORAT.	18	14	2	2	85	38	30
TOVARITX	18	14	2	2	68	42	30
AC SURCOS	18	13	2	3	104	42	28
TUTTIFRUTI	18	11	5	2	89	53	27
CARBUROS	18	11	4	3	72	32	26
REVOLUTION ROCK	18	12	2	4	83	40	26
FRANCISCANERR	18	11	2	5	82	55	24
NUEVO TABERNA	18	8	3	7	60	56	19
LASO ARREGI	18	8	2	8	59	63	18
LOS DIMY	18	5	7	6	60	48	17
SOLANO 7 MARES	18	7	3	8	77	88	17
GURE LEKU	18	7	2	9	59	62	16
KRISKIBALDA	18	5	3	10	60	78	13
MACCABI DE LEV.	18	4	2	12	47	83	10
BODISCA	18	4	2	12	34	84	10
ILUNA TABERNA	18	3	1	14	35	107	7
ELISABETH	18	2	0	16	35	98	4
EZKIÑAKO HONTZAK	18	2	0	16	33	126	4
KOAK LAIT	18	1	0	17	22	57	2

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**

Erakusketa berria:
Kanpatorrea, 2
(Parrokia ondoan)
ETORRI KUSTERA!

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

GORKA

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

M

MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekarria
Arrisku gerentea
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Boulevard, 11 5^a-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

Garaiko perretxikoak urte
guztian zehar!!

**RUTH
GATZAGA**

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE

• Eguneko menua
• Asteburuetan menu berezia
• Paregabeko karta





Hurrengo faseko zozketa sistema azalduko dugu: 5 "bonbotan" jarriko dira sailkatuak. 1. bonboa lau 1.entzat, 2. bonboa 2.entzat, 3. bonboa 3.entzat, 4. bonboa 4.entzat, eta 5. bonboa gainerakoentzat (5. postutik 8.era, 16 ekipo). Taldeak osatzeko, lehen lau bonboetatik ekipo bana hartuko da, eta azken bonbotik 4 ekipo.

BELARRIRA

◆ **Astelehenean, bilera eta zozketa.** Bigarren faserako zozketa egiteko eta gauzak apur bat antolatzeke, sailkatutako taldeak astelehenerako daude deituta (hilak 28), Monterronen arratsaldeko 7etan egingo den bilerara. Mesedez azaltzeko eskatzen dute antolatzaileek.

◆ **Adelaida Haizea kanpora.** Beste talde bat txapelketatik kanpo geratu da asteburuan jokatzera ez azaltzeagatik. Duela hiru urte txapeldun geratutako Adelaida Haizea talde historikoa izan da kale egin zuena, bi jokalaria besterik ez ziren eta jokatzera agertu.

◆ **Uribe Auzoa txapelketa.** Sailkatzen ez direnek beti dute Uribe Auzoa txapelketan jokatzeko aukeral. Martxoaren bigarren asteburuan hasiko da Iturripen jokatu den txapelketa eta berau antolatzeko bilera martxoaren 2rako (datorren asteazkenean) antolatu dute Uribeko Gazteek. Bilera Monterronen izango da, arratsaldeko 7etan.

EMAITZAK

A TALDEA

- Uglys Txinato 6 - Whiskeria Linde 1
- Suministros Ugarte 3 - Zotz 1
- Jey Juliwer 3 - Sokoakoak 3
- Fraguel Gol 1 - Koxkas 2
- Etxe Mobiliario 7 - Ikatz 0
- Berango Sukaldeak 3 - Euskal Indarra 5
- Auf dem Koffer 4 - Bizkorak Avenida Tab. 2
- Anbotoste KT 6 - Bayern Lenitz 2

C TALDEA

- Pepelus 2 - Potrosorri 0
- MZK Ganbelas 7 - Sibilius Rover 0
- Mikelos 3 - Nabarros 3
- Los Dalton 3 - Motz 3
- Kirten Tropol 1 - Los Heredia 5
- Hirei 4 - Leya 6
- Fosforos 3 - Kakajauri 2
- Txoko Taberna 2 - Foto Imagen 1
- Arrasate Kristaldegia 4 - Borrokn Roll 0
- Adelaida Haizea 0 - Corinto Taberna 1

B TALDEA

- Notxingan Florest 3 - Zuloak 5
- Leintz Garagardotegia 5 - Ojo Avisore 5
- Irati STS 13 - Monterrey Zubi Bel 2
- Fancy Bois 3 - Kopyprest 3
- Diego Antonio 1 - Ganbelas 4
- Bukanak 3 - Excav. Lete 2
- Atxanta ke te merece 2 - Danok Lagun 4
- Argi Ibil 6 - Betrayer 3
- Alpen Krausser 3 - Arrasate Kirolak 11

D TALDEA

- Tovarixt 4 - Tuttifrutti 3
- Revolution Rock 2 - Zulus 2
- Maccabi de levantar 6 - Solano 7 Mares 8
- Laso Arregi 1 - Potroak Lorategi 4
- Kriskibalda 1 - Los Dimy 5
- Elisabeth 3 - Gure Leku 2
- Bodisca 4 - Ezkiñako Hontzak 1
- Iluna Taberna 2 - Carbuos 6
- AC Surcos 2 - Nuevo Taberna 9



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 26

Zaldibar

- 08.50 Uglys Txinato - Zotz
- 10.00 Laso Arregi - Los Dimy
- 11.00 AC Surcos - Tuttifrutti
- 12.00 Tovarixtx - Zulus
- 13.00 Los Dalton - Los Heredia
- 14.00 Notxingan Florest - Ojo Avisore
- 15.00 Revolution Rock - Solano 7 Mares
- 16.00 Pepelus - Sibilius Rover
- 17.00 Fancy Bois - Ganbelas
- 18.00 Aufe dem Koffer - Bayern Lenitz
- 19.00 MZK Ganbelas - Nabarros

Iturripe A

- 11.00 Elisabeth - Ezkiñako Hontzak
- 12.00 Txoko Taberna - Borrocn Roll
- 13.00 Fraguol Gol - Ikatz
- 15.00 Lenitz Garagardotegia - Monterrey Zubi Bel
- 16.00 Diego Antonio - Excavaciones Lete
- 17.00 Arrasate Kristaldegia - Corinto Taberna
- 18.00 Anbotoste KT - Arlutz

Iturripe B

- 11.00 Berango Sukaldeak - Bizkorak Avenida Taberna
- 12.00 Jey Juliwer - Koxkas
- 13.00 Irati STS - Kopyprest
- 15.00 Bukanak - Danok Lagun
- 16.00 Kirten Tropel - Leya
- 17.00 Atxanta ke te merece - Betrayor
- 18.00 Hirei - Kakajauri

Igandea 27

Zaldibar

- 08.50 Fosforos - Foto Imagen
- 10.00 Argi Ibili - Arrasate Kirolak
- 11.00 Suministros Ugarte - Trikiti
- 12.00 Mikelos - Motz
- 13.00 Alpen Krausser - Tronkoteak

Iturripe A

- 11.00 Etxe Mobiliario - Euskal Indarra
- 12.00 Maccabi de Levantar - Potroak Lorategi

Iturripe B

- 11.00 Franciscanerr - Gure Leku
- 12.00 Bodisca - Carburos
- 13.00 Iluna Taberna - Nuevo Taberna



Gauza asko erabakitzeke daude oraindik

2. fasera sailkatu behar diren 32 taldeen izen gehienak dakizkigu. Sailkapenetako ordena ere kolokan dago zenbait kasutan, eta horrek ere garrantzia dauka, 2. faseko zozketan talde bakoitzeko 4 lehenak banatuta zozkatuko dituztelako, zerrendaburuen gisan. Azter dezagun egoera:

A taldean, lidergoa dago jokoan: Trikiti eta Suministros Ugarte parra doaz, eta elkarren aurka daukate igandean. Han erabakiko da dena. Gero, 4.postutik 6.era aldaketak egon litezke, baina zortzi lehenek ziurtatuta dute sailkapena.

B taldean, ordena aldaketa egon liteke 4. postutik 6.era, eta gero 8. postua dago erabakitzeke: Tronko-

teak eta Alpen Krausser parra daude, eta elkarren aurka dira jokatzekoak.

C taldean, Heredia eta Fosforos parra doaz, baina Herediak abantaila dauka averagean, eta gauzak horrela amaitu daitezke seguruenik, partidua erraz samarrak dituztelako. Taldeko saltza Mikelos-Motz partiduan egongo da. Mikelosek 3. postuagatik egingo du borrokan, baina Motzek sailkapena dauka jokoan, galdu ezker atzetik duen Txoko taldeak aurrea har diezaiokeelako.

D taldean, lidergoa jokoan, Potroak, Zulus eta Tovarixtxen artean. Zulus - Tovarixtx neurketan izango du gu arreta, iaz azkenak geratutako Tovarixtxek sorpresa eman dezake eta.

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK

77 08 15

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

**MARKO-
JARTZEAK**
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

ESLU

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

● *Jonan Fernandez*

Elkarriren 94ko erronkak

Jonan Fernandez, Tolosako HBko zinegotzi izandakoa, Leitzarango autobidearen inguruan egin zen ezaguna, Lurraldeako buruzagi bezala. Gai hark konponbidea aurkitu ondoren, elkarrizketa eta bakearen aldeko talde bat sortu zuen izia: Elkarrri. Arrasaten izan da aste honetan ATBko programa bat grabatzeko, eta elkarrizketa hau egin diogu bide batez.

— Zertan aldatu da Euskal Herriko panorama Elkarrri sortu zenetik?

— Nik uste dut irtenbide elkarrizketatuaren aldeko jarrerara gizaratean orain lehen baino askoz nabariagoa dela. Hori ez da Elkarriri esker bakarrik, baina neurri handi batean bai. Beste alde batetik, uste dut aurrepausu garrantzitsuak eman direla; adibidez, Arantzazun hasi eta Marroñon bukatu den prozesua. Uste dut benetan interesgarria eta erreferentziala izan dela eta hortik atera den akordioa benetan garrantzitsua dela.

— Nola baloratzen duzu bakearen aldeko taldeen arteko hurbiltze hori?

— Oso positiboa izan da. Uste dut aurrepausu eredu-garria izan dela, eta alderdi


politikoek eta beste agenteek gogoeta bat egin beharko luketela. Sindikatuak, berriz, ari dira zertxobait egiten horren inguruan, eta hor dago LAB eta ELAren arteko akordioa, adibidez. Orokorean oso prozesu inportantea da hau. Uste dut prejuizio asko gainditu egin direla eta etorkizunari begira aukera asko daudela aurrera egiteko.

— Zuen eskeman, 94ak akordioaren urtea izan behar zuen. Asmo horri eusten diozue?

— Gure lan-helburu bat bezala kokatzen genuen 94aren asunto hori. Iruditzen zitzaigun eta iruditzen zaigu oraindik ere bakearen atoiari hitz erraz asko daudela, erraza dela hitz egitea elkarrizketari buruz, bakeari buruz. Baina inoiz ez da zehazten nola, ze bidetik, ze epetan. Eta guk nahi genuen proiektu bat presentatu, eta horretan 94a helburu bat da bakarrik. Horretaz aparte, uste dut pixkanaka-pixkanaka hurbiltzen ari garela bakearen helburura. Badakigu 94an zaila dela aldaketa garrantzitsu bat geratzea, baina bide batez posible ikusten dugu aurten aldaketa kualitatiboa lortzea.

— Martxoaren 12rako manifestazioa antolatuz duzue. Ze helbururekin?

— Gure ustez, une hone-



tan eta testuinguru honetan, inoiz baino aukera gehiago daude distentsio eta elkarrizketaren bidean aurrepausu bat emateko. Kontestu horretan, iruditzen zaigu oso garrantzitsua dela gizaratek halako inizatiba bat sortzea, hori eskatuz. Horregatik manifestazioaren lema hauxe izango da: "Elkarrizketa eta distentsioa, oraintxe dugu aukera". Hau da, orain dela momentua, eta lehentasunak distentsioa eta elkarrizketa direla, gure ikuspuntutik.

— Elkarririk ENAM edo MLNV delakoan tentsioak eragin omen ditu.

— Nik uste dut ez dela ondo planteatu asunto hori. Elkarririk, bai Herri Batasunarekin edo bai beste edozein alderdi politikorekin, adosta-

sun eta desadostasunak ditu. Eta nik uste dut hori normala eta erabat osasuntsua dela. Eta guk, behintzat, oso lasai hartzen dugu eta saiatzean gara etortzen diren kritika guztiak ikuspegi konstruktibo batetik jasotzen. Une honetan esan dezakegu gure harremanak, bai HBrekin, bai MLNVrekin eta bai gainontzeko alderdi politikoeekin, nahiko onak direla.

— Zertan da herrietako tailerren lana?

— Uste dut Arrasaten tailer majoa dagoela. Nahikoa aktibitate daukatela. Badakit orain manifestazioaren helburuan erabat zentratuta daudela. Une honetan, Elkarriri zer den zenbakitan esateko, esan behar dugu jaso ditugula jadanik 130.000 sinadura, 2.200 bazkide ditugula hileroko mila pezeta ordaintzen dutenak — eta hori da gure finantziabide bakarra—. Gero, herrietako ehun tailer inguru ditugu, eta gutxi gorabahera 800 militante eta 400 laguntzaile.

● **“Adostasun eta desadostasunak ditugu HBrekin eta beste edozein alderdirekin. Eta hori normala da”**



Eskualdeko zortzikoteen lehiaketa komarkala, urtero egiten zen.

Euskalduntze mugimenduaren lehen taupadak Arrasaten

Maidar Egües

Frankismoak ez zion inolako onurarik ekarri Euskal Herriari, era berean, ezta Arrasateri ere. Txoko guztiak bustitzen zituen eta euskalduntze ahalegin oro, atzera botatzen zen. Badira, dena den, horren aurka borrokatu zutenak.

Ikastetxeetan, ikastolen sorrera arte, ez zen euskerarik entzuten, eta jendearen arteko harremanak, erdara hutsean egiten ziren. Euskeraz hitzegiten zutenen, "kaxeroak" ziren eta kultura-gabeko pertsona kontsideratzen ziren. 60.ko hamarkadan, lanpostuen bapateko gehikuntza gertatu zen eta Arrasate in-

dustria askoren bilgune bihurtu zen, makina bat etorkin batu zituen eta hauen heziketa erdal kutsukoa zenez, Arrasatek sekulako erdal eragina jasan zuen, euskera eta euskal giroa, guztiz bazterturik geratu zirelarik. Oñatin, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan euskeraz hitzegiten jarraitzen zen. Garai hartako egoeraren ideia bat izateko, gaur egun 50 urte dituen familia euskaldun bateko arrasatear batek, 1962-1964an, ez zekien euskeraz hitzegiten, eta jakina, garai hartan ez zen euskal kontzientziarik arrasatearren artean.

ALERTA

Euskararen egoera larri horrekin kezkatutik, pertsona multzo bat, hainbat gura-

sok eta euskaltzalek osatua, lanean hasi zen. Erdaltze prozesu horrek aurrera jarrai ez zezan, arazoari adarretik helitzea erabaki zuten: herriko seme-alaben heziketa, euskaraz egin beharra zegoen.

Erreztasunekin baino, askoz ere arazo eta oztopo gehiagorekin egin zuten topo: heziketa euskalduna eskola aurreko umeekin ematen hasi ziren, eskolaurreko haurrekin. Elizaren babespeko eskolak zirenez eta heziketa-programa nahi ahala antolatzeke eskubidea zuten, hezkuntza euskalduna umeen artean zabaltzen hasi ziren inolako eragozpenik gabe. Irakasleek, ez zuten jakina, irakasle titulaziorik, eta euskal hizkuntzari buruz zekitena ere, oso gauza eskaxa zen. Dena dela, irakas-

Euskal jaian, jendea berotu egiten zen, goardia zibilak atera eta sekulako iskanbilaren eszenatoki bihurtzen zen kalea.

le "alternatibo" haiei esker, haurrak euskal heziketa bereganatzen hasi ziren. Guzti honetarako, jakina, ez zegoen dirurik, udalak ez baitzien inola ere era honetako initziatibei laguntzarik ematen. Ez zegoen lokalik ere eta gurasoen poltsikoetatik ordaindu behar zen dena. Euskalduntze ahalegin hauek oso kondizio txarreko lekuetan eta egoeratan burutu arren, oso pauso garrantzitsua izan zen gerora begira, 1968an lortuko zen ikastolaren abiapuntua izan baitzen. Euskalduntze prozezuari dagokionez, 60.ko hamarkadan herria pasibotasun hutseko egoeratik sekulako egoera aktibora pasatu zela esan daiteke, 64tik 68rako urte bitartean batez ere. Urte bitarte honetan, gau-eskolak eratu ziren, baita "Euskal Jaia" (orduan "Fiesta Vasca" izenez ezagutzen zena), Zortzikoteen lehiaketa, bertso jaialdi edo txapelketak etabar.

GAU-ESKOLAK

Heziketa alorreko euskalduntze ahaleginak, haurren gurasoen kezka sortu zuen, haurrak etxean euskaraz mintzatzen hasi ziren eta gurasoek ezin jarraitu zieten, euskal hizkuntzari buruzko dudak izanez gero, gurasoek ezin lagundu zieten, euskeraz mintzatzeko ohitura, guztiz galduta zutelako. Dena den, bixi xamarra da, haur haien gurasoek, 6-7 urterekin erderaz hitzegiten ez zekitela jakitea. Horra hor kanpotik etorritako etorkinen eragin garbia (Arrasateko populazioaren % 60a, kanpotarra izatera heldu zen). Horregatik, "Gau-eskolak" sortu ziren (1964): Gau-eskoletara haurren gurasoak joaten ziren, baita beste pertsona batzuk ere. Euskera ikastera nahiz euskeraz berba egiteko ohitura berreskuratzera joaten ziren. Klase hauek, Erguingo eta monjetako ikastetxeek eta



Juanito Arzamendik zuzendutako "Danok" korala.

eskola politeknikoak utzitako geletan burutzen ziren. Gau-eskolek, sekulako eragina izan zuten gerora ikastolak sortzeko.

Gau-eskolarekin batera, kalean euskal giroa nabarmentzen hasi zen, euskaldunak euren tokia egiten hasi ziren. Gainera, frankismoaren garaian, jendeak iniziatiba guzti hauek aho batez onartzen zituen eta inor ez zen kontra agertzen. Horrela ba, beste zenbait euskal-ekintza burutzen hasi ziren.

EUSKAL-JAIA

Urtean behin burutzen zen eta jende guztia baseritar janzten zen. Goizez, herri-Kirolak, txarangak, bertso-jaialdiak etabar antolatzen ziren, arratsalde berriz, karroren desfilea egiten zen: Herriko koadrila bakoitzak, bere karroza prestatzen zuen. Karroza hauek, erreibindikatiboak izaten ziren, politika kutsukoak. Jendea "berotu" egiten zen, protestaka hasi eta guardia zibilak ateratzen zi-

ren. Kaleak sekulako iskanbilaren eszenatoki izaten ziren. Horrela izaten zen garai hartako Euskal-Jaia Arrasaten.

ZORTZIKOTEEN LEHIAKETA

Lehiaketa hauek eskualdekoak izaten ziren. Herri mailako zortzikoteak batu eta lehiaketa sinpleak burutzen ziren. Gauza bera egiten zen bertsolaritza txapelketekin ere. Dena den, lehiaketa hauek beren jarraipena izan zuten "Danok" elkarteak sortu ondoren. Orduan, Euskal Herri mailako lehiaketa bihurtu ziren.

"CENTRO DE ACCION CATOLICA": BILTOKIA

"Centro de Acción Católica", elizaren taberna zen eta

herri guztietan zegoen horrelako bat. Arrasaten, Gazteluondorantz joanez, kaleko azken etxea zen, gaur egun botata dagoena. Iturriotz kaleko "C.A.C." jende askoren biltokia zen eta oso giro ona egoten zen beti. Haurrek beren jolastokia zuten eta arrasatearren topaleku garrantzitsuenetarikoa zen. Sarrera libre zenez, hara joaten ziren euskalduntze prozesu honetan ari zirenak, izkina batean jarri eta "bilerak" egitera. Ekintza guzti hauen antolatzailerik, euskal-talde bat sortzearen beharra somatu zuten ordurarte egindako ekintza guztiek izan zuten onarpen maila ikustean. Horrela, 1966. urtean, gaur egungo Arrasateko euskal elkarte orenen aitzindaria izan zen elkarteak jaio zen: "Danok" elkarteak.

"Danok" elkarteari buruzko dokumentu gehienak Gurea zine-man zeudela erre zirenez, elkarteak osatu zuten pertsona batzuekin bildu ahal izan dugu informazio hau. Dena dela, gai honi jarraipen sakonagoa eman nahi diogunez, "Danok" elkartearekin erlazioan ututako edozein informazio edo material mota duen guztiari, ARRASATE PRESSera ekarri dezala eskatzen diogu.

Juan Cruz Guridiren errautsak etxeratu egin dituzte

Juan Kruz Guridi pilotari arrasatearraren errautsak Arrasaten lurperatu zituzten joan den igandean. Juan Kruz, munduan zehar puntista ibilitako pilotaria, Mexikon bizi izan zen azken urteetan, eta bertako hiri-buruan hil zen otsailaren 9an, 85 urte zituela. Baina bere azken gogoa Arrasaten atsedean hartzea zenez, familiak bere gorpua intzineratu egin zuen eta hondarrak Aldaiko hilerrian utzi zituzten.

Juan Kruz Guridi 1908an jaio zen, pilotari familia batean. Arrasaten hasi zen pilotan, eskuz nagusiki, baina familia bizi izatera Donostiara joan zenean zesta-puntan jokatzen hasi zen, bere anaia nagusi Danielen urratsak segituz. Euskal Herriko lehen puntistak Ameriketara joan zirenean (1926an), haraxe joan ziren Daniel eta Juan Kruz, Miami lehenbizi, eta munduan zehar ostean, jokalaria onen elitean.

Gaur egungo nazioarteko zesta-punta Estatu Batuetan dago kokatuta batipat, baina garai haietan askoz hedatuagoa zegoen, eta pilotariak munduan zehar biraka bizi ziren. Kairo, Shanghai, Filipinak edo Rio de Janeiro bezalako tokietan jokatzen zuten Guriditarrek, eta bizimodu *glamourosu* samarra bizi izan ere bai,



Juan Kruz Guridi (37 zenbakiaz), bere anaia Danielekin Tijuanan.

gaur egungo tenista batzuen gisan edo. Gerra zibilak Txinan harrapatu zituen, adibidez. Nonbait, Juan Kruzek ez zuen patxada handirik hartu bizimolde horretan, eta mutil-zahar hil da, familiarik utzi barik. Juan Kruzen anaia, Daniel, Malagan bizi da emaztearekin, 87 urte dauzka eta osasun onean dago.

Azken urteetan Mexikon bizi zen Juan Kruz Guridi, eta oso ezaguna zen hango

Euskal Etxearen bizitzan. Urtero etortzen zen Euskal Herrira, baina azken bi urteetan ez, osasunez kaskar zebilelako. Azken uneetan, bere iloba Joxe Guridik lagundu dio Mexikon, eta hark herriratu ditu osabaren hondarrak. Joxek kontatzen digunez, oraindik bihotzean zeroan Arrasate Juan Kruzek, eta euskara apur bat ere gogoratzen zuen, nahiz eta 18 urte zituenetik, ez zen Euskal Herrian bizi izan.

LABURRAK

Saskibaloian dotore

Arrasatek dotore irabazi zion Altsasuari Musakolan jokaturako 2. mailako 2. faseko lehen partiduan. Lidergoarekin ekin dio Arrasatek 2. fase honi, eta bere atzetik doazen aurkari zuzenenek ere irabazi egin zuten arren, estu samar ibili ziren markagailuetan. Askatuak-ek eta Atletico SS-k juxtutxo irabazi zuten DF Araba (81-82) eta Ordiziaren (74-76) kantxetan. Bi talde donostiarrak eta Loiola-Indautxu bilbotarrak favorito dira pronostikoetan, baina hor aurrean dauzkate mondrauetarrak.

Kolistarekin kale

Bistan dago Mondrak zorte hobea duela kanpoan Atxabalpen baino. Erandio kolistari ere ezin izan zioten irabazi, eta 2-3 izan zen amaierako emaitza. Mondrak jokoa menderatuta izan zuen, baina 20 bat aukeratik bi gol besterik ez zituen egin, eta Erandiok, aldiz, lau aukeratik hiru gol.

Atletismo frogak

Aitor Arnaiz arrasatearrak Euskadiko selekzioaren parte hartu zuen joan den asteburuan Zaragozan jokaturako lau elkarte autonomoren arteko atletismo txapelketan. Arnaizek 4x200eko errelebo frogan korritu zuen. Euskadi 2. sailkatu zen txapelketan.

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

Euskadiko Itzuliarekin batera eskuliburu bat kaleratuko da

Euskadiko Txirrindulari Itzuliaren hasieraren antolakuntza aurrera doa martxoan. Itzuliko taldeen aurkezpena apirilaren 3an izango da Arrasaten. Biharamunean Arrasate-Arrasate etapa korrituko da, ea 5ean Arrasate-irtengo du 2. etapak. Antolakuntzak 4,5 edo 5 milioi PTAKo aurrekontua dauka, eta horietatik 2,1 milioi udalak jarri ditu. Gainerakoak babesleen bidez lortzen ari dira antolatzaileak, eta oraingoz nahiko ondo doa laguntza-bilketa. Logotipo bat ere diseinatu dute.

Itzuliaren irteera soilaz gain, beste ekitaldi batzuk ere antolatuko dira, eta horietan garrantzitsuena eskuliburu

baten argitalpena izango da: Leintz bailarako txirrindularitza 50 bat orrialdetan bilduko duen liburu horretarako datu eta irudiak ari dira biltzen dagoeneko, 3.000 aleko argitalpena bat egiteko. Baina antolatzaileak ahalik eta argazki eta datu historikogehien bila ari dira, eta jendearen kolaborazio eskatu dute. Dokumentu interesgarriak daukanak, Monte tabernara jo dezala.

Antolakuntzaren aurrerakuntzak ikusteko, Euskadiko Txirrindulari Federakuntzako ordezkariak izan ziren Arrasaten, eta oso inpresio ona hartu zuten. Hala ere, badago detaile garrantzitsu bat konpontzeke: errepideen

EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARI
XXXIV ITZULIA

ARRASATE
1994'ko APIRILAK 4



Munduko elitea izango dugu Arrasaten apirilaren 3tik 5era.

konponketa. Udalak Diputazioari behin baino gehiagotan eskatu dio Gipuzkoa Etorbideko eta herri-irteeretako asfalto konpontzeko, baina oraingoz alferrik izan da. Eta geratzen den denboragatik, errepideak daudenetan geratuko direla susma daiteke,

zulo eta guzti. Bestetik, helmuga toki aproposan egongo dela ikusi zuten Federakuntzakoek. Abaroa erresidentziaren parean izango da helmuga, eta antolakuntzarako zerbitzu guztiak Abaroan bertan izango dituzte prest.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 2 - Erandio 3
Emakumezkoak: Gure Txokoa 3 - Mondra 2
2. regionala: Mondra 4 - Aloña Mendi 2
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 1 - Zumaiako 1
Kadeteak, 1. maila: Arrasate 3 - Eibar 0
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 0 - Idiazabal 4
Haurrak: Arrasate 6 - Ilixta 2
Hurrengoak:
3. maila: Mondra - Anaitasuna. Atxabalpe, igan., 16.30.
Emakumezkoak: Mondra - Aloña Mendi. Atxabalpe, igan., 12.00.
2. regionala: Mondra - Urola. Atxabalpe, lar., 16.30.
Jub. Ohorezko Liga: Trintxerpe - Mondra. Larunbata, 17.15.
Jub., 2. maila: Arrasate - UDA. Atxabalpe, igan., 10.00.
Kadeteak, 1. maila: Ordizia - Arrasate. Igandea, 10.30.
Kadeteak, 2. maila: Urola - Arrasate. Zumarraga,

lar., 15.30.
Haurrak: Idiazabal - Arrasate. Larunbata, 11.00.

Saskibaloia

2. maila: Arrasate 85 - Alsasua 71
Sub-23: Arrasate 73 - Ordizia 76
Jub. mutilak: Ordizia 68 - Arrasate A 57
Jub. neskek: Patterncam 84 - Loiola 86
Kad., mutilak: Loramendi Kirolak 61 - Don Bosco 48
Kad., neskek: Hondarribia 53 - Benetton 34
Andraitz 61 - Arrasate B 26
Hurrengoak:
2. maila: Patronato - Arrasate. Bilbo, La Casilla, lar., 17.30.
Sub-23: Zarautz - Arrasate. Zarautz, igan., 12.00.
Jub. mutilak: At. San Sebastian - Arrasate A. Donostia, ost., 18.15.
Arrasate B - Laskorain. Musakola, lar., 16.00.
Jub. neskek: Amigos Bcto. - Patterncam. Irun, lar., 16.00.

Kad., mutilak: Askatuak B - Loramendi Kirolak. Donostia, lar., 16.00.
Zarautz - Arrasate B. Zarautz, lar., 16.00.
Kad., neskek: Juven B - Benetton. Donostia, lar., 10.00.

Rugby

Lagunartekoa, nagusiak: Arrasate 8 - Eibar 40
Lagunartekoa, neskek: Arrasate 30 - Eibar 0
Hurrengoak:
Neskek: Arrasate - Elorrio. Garagartza, lar., 15.30.


Eskubaloia

1. eskualdekoa: Arrasate Kirolak 21 - Akondia 21
2. eskualdekoa: Arrasate Kirolak 17 - Pulpo 21
Jubenilak: Arrasate Kirolak 17 - Hernani 23
Hurrengoak:
1. eskualdekoa: Bergara - Arrasate Kirolak. Bergara, lar., 17.45.
2. eskualdekoa: Ordizia - Arrasate Kirolak. Ordizia, igan., 12.00.

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



EGVZKiGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Muxibar gainekue (San Andres)


Aurreko astien Boliñete aldera begira dauen Muxibar Azpikuen barri emon gaben. Aste honetan Atxabaltarutz begira dauen Muxibar Gaiñekuen barri emongo dou.

Gaur Joxe Bixente Etxabe Arregi, bertako semie, Margarita Urteaga Arregi Koruetako Mendikurtza basarriko alabie eta euren seme-alabak bizi die.

Joxe Bixentek eta Margaritak sei seme-alaba izan ditue: Mikel, Rafa, Miren, Joxe Anton, Pilar eta Jexis.

Muxibar Gaiñekue 1914.ien Solari erosittekue da. Honen aurreko ugezabak Kontzeziñoko mojak ei zien.

Joxe Bixenten ama, Anastasi Arregi Berezibar San An-



dresko "Axe"ko alabie zan. Aitte oster, Joxe Etxabe Iturbe, bertako semie.

Etxabe apellido hau Ma-

ringo Uretza basarrittik etorrittekue da. Etxe honetakuek aurretik Iturbetarrak zien.

Joxe Bixente bere denpo-

ra guztien artzai lanetan ibillittekue da, beheko balladako zelaixetan eta Degurixa inguruko pastuetan. Bere aurrekuengandik jasotako bizibidie dau.

Margari barrez, betidanik izen da basarriko jenero sailtzaile. Mundraueko plazan, Durangokuen eta Bitorixakuen landarak, gaztainak, gaztaie, etab. saldu izen dittu.

Muxibartarrak ezaunek izen die Mundrauen eta inguruetan. Joxe Bixenten tiok, Estabanek, basarrixen izena eroien tabernie euki eben Zarugalden. Famaue izen zan bertako beste seme bat be, Pedro Santa Kruz abadiatz ibillittekue..

KARMELE ZUAZUBIZKAR

HAU DA ESPERO ZENUENA!!



FIAT PUNTO BERRIA!!

KANPAZAR FIAT

TAILERRA: Bizkaia Etorbidea z/g. Tfnoa: 79 41 98
ERAKUSKETA: Araba Etorbidea, 4. Tfnoa: 79 77 66

ZER NAHIAGO?

Paco Gonzalez

Okendo Kirolakekoa



- Nori idatzi zenion zure azken gutuna? Nire semeei.
- Soldaduzka egin duzu? Bai, Madrilén.
- Zer oparituko zenioke emazteari? Lorak.
- Gustoren erabiltzen duzun jantzia? Ez dakit, txandala agian.
- Oinetako marka bat? "Lotusse".
- Praka marka bat? "Benetton".
- Joaten zara Maxi-ra erosketak egitera? Ez, ez dut ohiturarik.
- Zure emaztea joaten da? Ezta.
- Zer moduzko osasuna daukazu? Orainarte, nahiko ona.
- Hartzten duzu pastilarik? Ez.
- San Valentin egunean, oparitu zizuten zerbait? Ez.
- Oparitu zenion zerbait emazteari? Ezta.
- Zer kotxe duzu? Renault 25a.
- Atsegin duzu abiadura? Bai.
- Erabiltzen duzu koloniarik? Bai, "Adolfo Dominguez" kolonia.
- Gonak ala prakak; neskentzat zer nahiago? Prakak.
- Egunean, zenbat kafe hartzen duzu? Lau.
- Arrasateko txokorik politena? Santa Barbara beheko parke berria.
- Eta txokorik zatarrena? Pablo Uranga kalea.
- Badaukazu posterrik zure logelan? Ez, koadroak bakarrik.
- Gomendatu iezadazu filme bat? "El cazador".
- Janari bat? Baba zuriak.
- Zenbat diska dituzu etxean? 50 bat disko konpakto ditut.
- Amets bat? 35 urterekin jubilatzea.
- Etxeko janaria edo jatetxekoa? Etxekoa.


BERTSOAK

Ilerri berria

Orain ilerri berria degu gure notizi bezala, orain bai toki paregabean sartu behar gaituztela; San Kridtobal-gain zoragarrian, eztana inoiz ozpela; Aldaiko gisa, danok ixilik an konpondu gaitzela.

Ez diranetik gure maitasun oiek beti atzezinak, zoritxarrea ez ote gera alkarri maiz iltzegeñak? geltoki ontan utzi ditzagun negarrak eta samiñak; aruntz eraman baño len aztu gure konpondu ezinak.

JOXÉ MANUEL ARRIOLA



Mireia Gabilondo aktorea

“Kakatua Berdea” antzezlanean jo ta ke

Mireia Gabilondo bergatarra da eta 29 urte ditu. Duela 11 urte hasi zen antzerkiaren munduan murgiltzen. “Tanttaka” antzerki taldeko partaidea da eta Arrasaten antzeztu berri den “Kakatua Berdea”n, Severin markesaren papeira egiten du.

— “Kakatua Berdea”n lan egin aurretik, non ibili zara?

— Ni Donostiako Antzerki Eskolan hasi nintzen eta pedagogia karrerarekin tartekatzen nituen antzerki ikasketak. “Tanttaka” antzerki taldean sustutuzio bat egiteko deitu zidaten eta geroztik, bertako partaidea naiz. Antzeztan askotan hartu dut parte, “Agur Eire, agur”, “Flaminio” opereta, “kontuz, maite zaitut” musikala edo “Ada-gio Violentísimo” izan dira horietako batzuk. ETBn ere ibili naiz lanetan bat egiten.

— Nola heldu zara “Kakatua Berdea”ra?

— Beno, Arteszenako zuzendaritzak obra aukeratu zuen, Maribel Belastegia eta Fernando Bernués-ek. Mario Gas-i proposatu zioten obraren zuzendaritza eta testua asko gustatu zitzaionez, zuzendaritza eramatea onartu egin zuen. Kasting bat prestatu zen eta aurkeztu egin nintzen, beste



askorekin batera. Mario Gas ardu-ratu zen aktore eta aktoreak aukeratzeaz, horien artean, ni.

— Zer moduzko esperientzia izan da Mario Gas-ekin lan egitea?

— Esperientzia polita izan da, txarrena, gurekin denbora gehiago egon ez izana, gurekin obra estreinatu arte bakarrik egon zen eta. Gainera, obraren entsaioetan genbiltzanean ere, askotan kanpora joan behar izaten zuen. Bestela, oso gustora egon gara berarekin, oso azkar muntatu zuen obra, sekulako abilitadea dauka. Jende askok egiten dugu lan hemen eta guztiok koordinatzea lortu zuen.

— Antzerki hau, 28

.....
“Obra hau asko kritikatu da benetan nolakoa den jakin gabe”

sesioren bidez ikastetxeetara hurbiltzen ari da, eta gero, publikorako emanaldiak ere badaude. Ez da lan nekeza?

Begira, nerretzat, pertsonalki gogorrena, goizean goiz jeikitzea da, 11ak aldera sesioa hasten dugulako. Niri izugarri kostatzen zait ahotsa prestatzea, bakoitzak bere “erritmo bitala” goizez edo arratsaldez izaten du, eta nik adibidez, arratsaldez hobeto “funtzionatzen” dut. Bestela ez, oso gustora nago eta ez naiz aspertzen.

— Nola erreakzionatzen du jendeak antzeztanaren aurrean?

— Oso gustora egoten da jendea, ikastetxeetako ikasleak ere bai. Bestela, obrak erritmo handia du eta sexuari buruzko istorioak

daude, istorio sinpleak baina dibertigarriak dira eta gustatzen zaizkie. Ez dira garrantzi handiko eszenak izaten, baina gustatu egiten zaizkie, barre egiten dutelako eta batzutan txalotu eta dena egiten gaituztelako.

— Antzerki honetan inbertitu diren milioiek, antzerki konpainia independenteen kexa sortu dute. Zer iritzi duzu?

— Egia esan, ni ere antzerki talde independente baten barruan nago, “Tanttaka”n. Gai horretaz oso luze hitz egin beharko genuke zerbait ateratzeko, baina nik uste dut obra hau asko kritikatu izan dela benetan nolakoa den jakin gabe, hau da, obra honetan 40 pertsona baino gehiago gaude lanean, eta 40 pertsonarentzat lana aurkitzea ere ez da hain erraza. Barruan sartuta gaudenok, asko borrokatu behar izan dugu hau lortzeko. Gainera, 5 edo 6 hilabetetako lan etengabea da eta horrek gastu handia ekartzen du. Baina bestalde, ez da ahaztu behar talde independenteok ere laguntzak behar ditugula. Laguntza ekonomikoak orekatuagoak egon beharko liriteke. Nire ustez, inbertso honi ez litzaioke ezer kendu behar, baina beste antzerki taldeei zerbait eman beharko litzaieke.

ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA

MENDIA

Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak

Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59



PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
 ARRASATE Tfnoa 79 29 94


LABURRAK

Andaluzia Eguna otsailaren 28an

Al-Andalus elkarteak Andaluzia eguna ospatuko du otsailaren 28an, astelehen, Erguinen duen zentruan. Bertan, Andaluzia eta Euskal Herriaren omenez, brindis bat egingo da ardoarekin eta "Coro Rociero"ak, Andaluziako erezia abestuko du. Arratsaldeko 8etan izango da hau eta nahi duen guztia, gonbidatuta dago. Dena den, egun nagusia, datorren martxoaren 5ean izango da: Andaluzia eguna ospatuko da eta Musakolako Kiroldegian.

"El Mariachi" Alai Zineman

Normalean, ez dugu zinean ematen diren pelikulen berri atal honetan ematen, baina filme honen bitxitasunagatik, gomendatu egin nahi dizugu. "El Mariachi" pelikula, Roberto Rodriguez zuzendari mexikarrak zuzendu du. 100.000ko aurrekontua besterik ez du izan eta diru hori lortzeko, zuzendariak bere osasu-na arriskatu zuen zenbait medikamentuen erreakzioa bere gorputzean frogatzen utziz. Pelikula grabatzeko erabili zen kamara, "etxeko bideoak" egiteko horietakoa izan da eta "travelling"ak imitatzeko, elbarrien gurgil-aulkiak erabili zituzten. Muntaiak honetatik atera zen emaitza, Alai Zineman duzu zai. Ez galdu!



Eskola Politeknikoaren 50. urteko historia, dokumentu desberdinen bidez ezagutzeko aukera dago.

Eskola Politeknikoa: 50 urteko bidea

Arrasateko Eskola Politeknikoaren 50. urteurrenaren ospakizun ekitaldien barruan, 50 urte hauetan egingandako bideari buruzko erakusketa antolatu da.

Erakusketa 6 panelek eta bi bideo-muntaiak osatzen dute. Paneletan, Eskola Politeknikoaren historia guztia kontatzen da, 40.eko hamarkadatik hasita, 80. hamarkadara arte.

40. HAMARKADA

On Jose Maria Arizmendiarrera, 1941. urteko otsailaren 5ean heldu zen Arrasatera, apaiz egin berri. On Jose Mariak, horrelako aukera bat gogoko zuten langile guztien seme-alabentzako lanbide heziketazko eskola bat eraiki nahi izan zuen eta 1943. urteko urrian, 20 ikasleren matrikulazioarekin, hasi zen.

50. HAMARKADA

Urte haietan Arrasatek sekulako etorkin kopurua hartu zuen. Horrek eragina izan zuen Arrasateren demografi hazkunderan eta ondorioz, ugaritu egin ziren heziketa eske ari ziren gazteak. 1952an, Eskola Profesional berria inauguratu zen, gaur egun Eskualde Ospitalea dagoen lekuan. 1957an, formazio profesionalaren berrikuntza osoa egin zen: Ofizialia Industrialeko 3 urte eta maestria industrialia osatzeko 2 urte gehiago ezarri ziren. 1958an, lehen neskak sartu ziren Eskolan.

60. HAMARKADA

Eskolaren promozio plana egin zen: heziketa fisikoko elementuak, kirol instalakuntzak eta alor sozialeko elementuak gehitzen zai-zkio eskolari: jangelak, ikas-

leen egoitza... Bestalde, Injinaritza Teknikoaren errekonozimendua egin zen 1968an.

70. HAMARKADA


Alecop sortu zen, ikasketen eta lanaren arteko alternantzia posibilitate gisa. Era berean, Ikerlanen sorrera dago. Zoritxarrez, hamarkada emankor honen kontrapuntu bezala, Jose Maria Arizmendiarreren heriotza dago.

80. HAMARKADA

Eskolaren berregituraketa. Institutu politeknikoa sortu zen; bertan Batxilergo Orokorra, Goi Mailako Batxilergo Tekniko Industrial eta LH2 Heziketa Teknikoa integratu ziren. Era berean, Eskolaren proiektu berri bat jaio zen: Saiolan.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



M freskoa" esaten zitzaion, eta ezkontzera zihoan neskari despedida egiteko, merienda egiten zuten lagunek. Maria Elorzaren despedida egin zuten Zentro Katolikoan eta zapatua edo domeka izan behar zuen, 1946ko udazkenean.

Merienda zer izaten zen ere gogoan dute gainera: txokolatea, ura bolauaz, mermelada eta bizkotxoak.

Ezkontzara familiakoak bakarrik joaten ziren, eta despedida honetara familiako

neskak, auzokoak eta laneko lagunak joan ziren, Zerrajerako lankideak. Talde honetakoek Kristobal Bedia Kontramaixuaren sekzioan egiten zuten lan. Orduko neskek lana utzi egin behar izaten zuten ezkontutakoan, familiako eginkizunetara bete-betean dedikatzeke.

Goiko lehen iladan, **Emilia Elorza, Dolores Mondragon, Pilar Garai, Mari Feli Romero, Franziska Uriarte, Maria Paunero,**

Laura Ortuoste eta Nieves Aranbarri.

Behean, **Meteri Eraña, Bonifazia Guridi, Teofila Maidagan, Eugenia Etxebarria, Maria Elorza, Maria Etxebarrieta, Rosa Meltxora Vitoria eta Maria Maritxalar.**

Makurtuta ezkerretik, **Kristina Garziaetxabe, Miren Garziaetxabe, Visitación Guridi, Alfonso Otadui, Josefina Etxebarria eta Nieves Otadui.**

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

amuebladora
mondragonesa

Sta. Marina, 36

LEKUZ

ALDATZEAGATIK

DENA

ERDI

PREZIOAN

% 50


Ez Aukera Hau Galdu!

• AIPUA •

*Abilezia da
pobrearen
aberastasuna*

WREN.

• JEROGLIFIKOA •



Gipuzkoako herria.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10						
11			12			13
14		15			16	
17					18	
19			20			

J. B. AGORRIA

Horizontala 1. Egiazale. San Andres auzoko futbol taldea. 10. Afrikan, Asmara da bere hiriburua. 11. Malagako ibilgailuetan. 12. Euskarazko Kabinete Teknikoa. 14. Itsasuntzi. 16. Einsteinioa. 17. Girtena. 19. (Ald.) Joan aditzaren erroa. 20. Kolore mota.

Bertikalak 1. Mugaegun. 2. Loreak dituen landarea. 3. Zezen zikiratu. 4. Zuzendu. 5. Turkian jaio dena. 6. (Ald.) Doktoretzako ikerlana. 7. Esmatu aurretik. 9. KRISTO AURREKOaren laburdura. 13. Erran. 15. AITORen kontsonanteak. 16. Niri. 18. 499, erromatar erara.

• HOROSKOPOA •

Aries Norbaiten laguntasunaren beharrean aurkituko zara.

Taurus Ea noiz ikasten duzun egiten dizkizun opariak ongi hartzen.

Gemini Zure burukomina hainbeste lan egitearena da, beraz lan gutxiago egin.

Cancer ...Diru faltan bazaude eskatu aldamenekoari, pozik emango dizu behar duzuna...

Leo Badakit azkenaldian norbait faltan botatzen duzun baina ezin dut nor den asmatu.

Virgo Katarroarentzako pastilak hartzen hasi beharko duzu gaizki bukatu nahi ez baduzu.

Libra Alferrik ari zara loterian jokatzenean; aste honetan ez zaizu ezer tokatuko.

Scorpio Azken ordurarte lasai egon eta azken orduan etorriko zaizkizu larritasunak.

Sagitarium Perfumea aldatzea komeni zaizu, honek usain txarregia dauka.

Capricorn Pesimistegia zara gauza onetarako. Hasi gauzei beste alde batetik begiratu.

Aquarius Norbait zutaz gaizki esaka ibiltzen da beti. Batek daki zer egin diozun.

Piscis Zorteak lagunduko ez dizun arren, poztuko zaituen zerbait gertatuko zaizu.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


**GINEKOLOGI
KONTSULTATEGIA**



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• USE GONZALEZEN GOMENDIOA •



“Gizakia tximi-noarengandik datorrela esaten dute... baina nora doan jakitea da garrantzitsuena. Eta nora doan jakiteko, nora goazen jakiteko, ez litzaiguke denoi gaizki etorriko gauzak egin aurretik erreflexio apur bat, sarriago ‘geratzea’. Izan ere, gure gizartean, gure eguneroko ohiturekin, ez dago gogoe-tarako gunerik. Lehenik erreflexio-natu, gero ekintzak egin”.
 Eta beste gomendio bat ere eman nahi digu Usek: “Merlin magoak esaten zuen bezala, ‘aspertzearen kontrako gauzarik onena... gauza berriak ikastea””.

• PROGRAMAZIOA •



27 Igandea
 20.00etan Astebete (errep.)
 20.30etan Mondragol.

28 Astelehena
 13.30etan Egurdiko Berriak
 13.35etan Astebete errep.
 20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
 21.30etan Mondrasport
 22.00etan Filme Erraldoia: “Amadeus”

1 Asteartea
 13.35etan Mondrasport errep.
 14.05etan “Amadeus” errep.
 20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
 21.30etan ATBketan
 22.00etan “Indiana Jones zorigaiztoko tenpluan”

2 Asteazkena
 13.35etan ATBketan errep.
 14.05etan “Indiana Jones zorigaiztoko tenpluan” errep.
 20.00, 20.30, 21.00tan Berriak
 21.30etan Tertulixan
 22.00etan Dokumentala: “Zer da odola? Zer da argia?”

3 Osteguna
 13.35etan Tertulixan errep.
 14.05etan Dokumentala errep.
 20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
 21.30etan Bakarka. Gonbidatua: Miren Azkarrate
 22.00etan Euskal Filmea: “Zergatik panpox?”

4 Ostirala
 13.30etan Egurdietako Berriak
 13.35etan Bakarka errep.
 14.05etan “Zergatik panpox” errep.
 20.00, 20.30, 21.00etan Berriak
 21.30etan Astebete
 22.00etan Haurren eguna: “Ozeko aztia”

• KOMIKIA •



Leire Zubizarai



VE ECUADOR
Bidaiak
 Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06

“EDERTU”
 ileapaindegia

 San Andres auzoa
 Tfnoa: 79 04 28

• SOLUZIOAK •

JEROGLIPIKOA
 Errenteria
 Esan. 15. Tf. 16. Ent. 18. ID.
 Kar. 6. Test. 7. Lo. 9. KA. 13.
 rano. 3. Idi. 4. Arzetu. 5. Tur-
Bertakak 1. Epenuga. 2. Ge-
 taina. 19. Oa. 20. Urdin.
 EKT. 14. Untzi. 16. Es. 17. Gir-
 drusko. 10. Eritrea. 11. Ma. 12.
Horizontak 1. Egiati. 8. Pe-
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Bi oheko logela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza salgai Uribe Auzoan.** 90 m². 2 gela, 2 bainu, garajea, trastelekua eta ganbara ditu. Hobekuntza ugari egindakoa da. Tfnoa: 79 37 99. Mikel. Betatik 3etara.
- **Etxebizitza behar da alokatzeko.** Tfnoak: 79 23 80 - 79 86 75. Iker.
- **Etxebizitza salgai Maala kalean.** 75 m²takoa. Sukaldea, bainua, 3 logela, jangela eta etzalekua. Guztiz kanpoaldekoa. Tfnoa: 79 34 54.
- **Hutsik duzun etxebizitza txiki hori** neurtzako modukoa da. Alokaturako didazu? Tfnoa: 79 01 66. Gaeuz.
- **Etxebizitzak salgai Olarte kalean** Bizkaia Etorbidean, 12 -4. Tfnoa: 79 87 47. (Eguerdiari).
- **Baserri bat hartuko genuke** ardiak zaintzeko. Tfnoa: 76 62 64. Imanol.
- **Bi oheko logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garajea salgai.** Irekia(marraduna). Uribarri Etorbidean. Tfnoa: 79 85 24. Eguerdiarian.
- **Maiatzetik edo ekainetik** aurrera etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 77 12 00. Yolanda (Ikerlan).
- **Etxebizitza alokatu** nahi dut San Andresen. Tfnoa: 79 51 88.
- **Erdialdean** etxebizitza alokatzen da, guztiz amueblatua eta kalefakzioaz. Interesatuok dei egin 79 35 50 tfnora, arratsaldez.

Lana

- **Emakume euskalduna** umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- **Uribe auzoan janari denda** traspasatzen da. Prezioa: 1.500.000 PTA. Tfnoa: 76 52 80.
- **Emakume euskalduna** eskaintzen da laguntzaile gisa, haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Marrazki geometrikoko** klase partikularrak jasoko nituzke. Ostiral arratsaldez edo asteburuetan. Tfnoa: 79 06 60.
- **Esperientziadun neska** umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 77 94.
- **2. REMeko ikasle bati** kimika eta teknologiki klase partikularrak emateko prest bazaude, dei egin ezazu 79 21 64 tfnora. Mariasun.
- **Esperientziadun andrea** etxeko garbiketarako egin eta haurrak zaintzeko prest dago. Ofizinarak eta atariak ere garbituko nituzke. Dei egin 79 31 44 tfnora.
- **Ingelesezko klaseak** ematen dira (mintzamen). Irakasle kanadiarra (Geoff). Ostiral arratsaldetan. Izen-ematea Biona tabernan.
- **Esperientziadun** administratiba prest lan egiteko. Tfnoa: 79 69 41 (Julia).
- **Deba Garairako PELUKERA** eta ESTETIZISTA behar ditugu. Interesatuak bidali kurrikuluma. Salbatierrabide, 32. 2.D. 01007 Gasteiz. J. Martinen izenean.
- **Injineruak** injineritza, marrazkia eta UBIko klaseak emango lituzke. Asteburuetan. Esperientzia. Tfnoa: 79 53 40. Mikel.

Salerosketak

- **Renault Twingo salgai;** berria da, lehiaketa batean irabazia. Tfnoa: 79 65 00. Marisol.
- **Trabesiako bota batzuk,** 42 zenbakikoak, Kofflach markakoak. Egoera onean. Tfnoa: 79 39 88.
- **10 urteko platanondoak** eskaintzen dira Loo baserrian. Tfnoa: 77 04 84.

Denetarik

- **Otsailaren 23tik aurrera,** egunero Bilbotik Arrasatera etorri behar dut 8,30etan. Zuk ere bidaia hau egin beharra baduzu, deitu mesedez. Tfnoa: 79 06 45. Miren.
- **YASHICA argazki kamara** galdu zitzaizkidan igandean Aretxabaletako Kutzako sukurtsalaren inguruan. Aurkitzen baduzu, dei egin 79 94 83 tfnora. Lorea.
- **Malagara joan behar baduzu,** bi arrasatear aurkituko dituzu Zensen. Ttukuna eta merkea. Erreserbak: 952 31 72 00.
- **Terreno laua** behar dugu alokagai. Tfnoa: 79 67 76. Raul.
- **Betaurrekoak galdu** nituen otsailaren 13 an edo. Marko beltza. Funda beltz baten barruan. "Imaz" Beasain jartzen du. Tfnoa: 88 17 95. Aintzane.
- **Argazki kamara automatikoa** galdu nuen ihauteri astearte gauean. Aurkitu baduzu barruan zeukan negatiboa, bota ARRASATE PRESSEKO buzoian.

Aste Gazte

Lanpostuak

- Diputazioak ondoko lanpostu hauek betetzeko deialdia egin du: lurralde informazioko goi mailako teknikari bat (lizenziatua), Mendi Injinari bat, Kirol Instalakuntzetako erdi mailako teknikari bat (arkitekto tekniko edo injinari tekniko industrial), 4 ekonomilar (ekonomi eta enpresa zientzietako lizenziatuek), 2 delineaite (LH-2 delineaizio adarrean), Nekazaritza eta Natur Guneetako goi mailako teknikari bat eta Obra Publikoetako 3 Injinari Tekniko. Izena emateko epea zabalik (gutxienez, martxoaren 4ra arte).
- Horieta gain, nahiz eta

oraindik deituta ez egon, ondoko lanpostu hauek onartu ditu Diputazioak: Laborategi Analista (LH-2 Kimikan), Kultur Gestiorako erdi mailako teknikaria (diplomatu), Laborategi Laguntzailea 2 (LH-1 Kimikan), Instalakuntzetako laguntzaile teknikari 2 (LH-2 elektrizitate eta elektronikan), Garraioetarako Ikuskapen Laguntzaile 1 (LH-2) eta Aterpetxeetako gobernari 1 (LH-1, eskola graduatua).

Irakasle plazak kalifornian

- 15 plaza irakasle elebiduntzat Oinarrizko Eskoletan; 5 plaza letraz arloan eta beste 5

zientzia arloan Bigarren Mailako Eskoletan. Epea: Martxoak 3.

Lehiaketa

- Ikasketa bidaien proiektu lehiaketa. Irakaskuntza Ertainetako ikasle nahiz ikasle unibertsitarioei zuzendua, 93-94 ikasturtean ikasketa bidaia egiteko. Proiektu onenen artean 18 sari banatuko dira. Epea: otsailak 28.

Dirulaguntzak

- Herriko gazte eta kultur taldeei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin da. Eskabideak aurkezteko epea martxoaren 31n amaituko da.

"Juizioak masiboak izango dira eta posible da aurten 600 intsumiso gipuzkoarretatik gehienak epaitzea gazteria kokiltzeko asmoz".

KAKITZAT. EGUNKARIAN.




Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

FOTO

imagen

ARGAZKI



Zerkaosteta, 5
ARRASATE
Tfnoa: 79 66 87


Argazkiak LIDER tamainuan (13x18)

Handiagoak
kalitate hobekoak

Argazki normalen PREZIOAN...


57 PTA

%40ko Beherapena FAGOR Modelo Batzuetan



BAINU ERAKUSKETA ZARUGALDE KALEA, 52
ARRASATE Tfnoa: 79 99 42

SUKALDE ERAKUSKETA UDALA ENPARANTZA, Z/G
ARRASATE Tfnoa: 79 00 48



iKFER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK